

BETEKADA BIDEZKO

NAHASMENDUA EKIDITEKO

TRESNA

*June Agirrebaltzategi, Naroa Agorria,
Gaizka De Bernedo, Pablo Fernandez de
Corres eta Xabi Nanclares*



DIRU-SARRERAK

Gure produktuak 600€ko balioa du. Prezioa nahiko altua denez, ordainketa mota bezeroaren esku uztea erabaki dugu: ordainketa bakarren edo epekako ordainketan. Ez dugu publizitatea egiteko asmorik, hau da, ez dugu ordainduko telebista, irratian, autobus geltoki batean edo horrelako lekuren batean gure produktua agertzeko baina gure produktua salduko diegun enpresak enpresa handiagoak direnez haiek (haine produktuekin batera) gure produktuaren publizitatea egiteko aukera izango dute.

Gure prezioak dinamikoak izango dira, hau da, guk finkatzen ditugun erreferentziazko aldagaien denbora-bilakaeraren arabera aldatzen den prezioa.